

LURRALDEKO INFORMAZIO BATZORDEAK 2020KO EKAINAREN 18AN EGINDAKO BILKURAREN AKTA	ACTA DE LA COMISIÓN INFORMATIVA DE TERRITORIO CELEBRADA EL DÍA DIECIOCHO DE JUNIO DE 2020
BILDUTAKOAK:	SEÑORES ASISTENTES:
PRESIDENTEA:	PRESIDENTE:

JANIRE OCIO CELADA andrea

BATZARKIDEAK:	V O C A L E S:
----------------------	-----------------------

JOSEBA ARREGI MARTÍNEZ jauna
ALVARO GONZÁLEZ PÉREZ jauna
IRANTZU URIARTE GÓMEZ andrea
IÑIGO URKITZA YAÑEZ jauna
EDUARDO ANDRADE AURRECOECHEA jauna
NATALIA ARANDUY ZUAZAGOITIA andrea
NEREA GUIJARRUBIA GARCIA andrea
ITXASO MASEDA SARATXO andrea
GONZALO AYO JIMENÉZ jauna
PAULA AMIEVA CLEMENTE andrea

IDAZKARIA:	SECRETARIA:
-------------------	--------------------

ISABEL PERAL AGUIRREGOITIA andrea

Getxoko Udalaren Udaletxeko Bilkura
Aretoan, 2020ko ekainaren 18an.

En el Salón de Plenos del
Ayuntamiento de Getxo, a dieciocho
de Junio de 2020.

Egun horretako 9:30etan, Lurraldeko
Informazio Batzordea elkartu zen;
idazpuruan zerrendatutako pertsonak
bertaratu ziren, aurretik egindako
deialdiko gai-zerrendan jasotako gaiei
buruz hitz egiteko.

Se reunió, a las nueve horas y treinta
minutos de este día, la Comisión
Informativa de Territorio, con
asistencia de las personas
relacionadas al encabezamiento, para
tratar los asuntos incluidos en el
Orden del Día de la previa
convocatoria.

Bileraren emaitza honako hau izan
zen:

Este fue el resultado:

**1.- 2020.05.21EAN EGINDAKO
BILERAREN AKTA ONESTEA**

Aldaketarik gabe onartu zen 2020.05.21eko bilkurari dagokion akta.

**2.- ZUGATZARTE ETORBIDEKO
61. ZENBAKIAN ZUGATZARTEKO
5-6 BANAKETA AREA) DAGOEN
LURZATIAN SESTRA AZPIKO
LERROKADURAK EGOKITZEKO
XEHETASUN-AZTERLANA
BEHIN-BETIKO ONESTEKO
PROPOSAMENA.**

Ikusi da ELISABETH PEDRAZUELA andreak INVERPROSA, S.L. konpainiaren izenean eta ordezkartzan aurkeztutako idatzia dela eta abiatutako espediente. Zugatzarte etorbideko 61. zenbakian (Zugatzarte 5-6 banaketa-arean) dagoen lurzatiari buruzko xehetasun azterketa erantsi zion.

GERTAERA.- ELISABETH PEDRAZUELA andreak INVERPROSA, S.L. konpainiaren izenean eta ordezkartzan 2018.10.11 egunean idatzia aurkeztu zuen. Zugatzarte etorbideko 61. zenbakian (Zugatzarte 5-6 banaketa-arean) dagoen lurzatiari buruzko xehetasun azterketa erantsi zion. Cardenal Abaitua arkitekto jauna egilea da.

GERTAERA.- 2019.02.14 eta 2019.02.22 egunetan ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura hasteko ingurumen agiria aurkeztu zuen.

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE,
DEL ACTA CORRESPONDIENTE A
LA SESIÓN CELEBRADA EL
21.05.2020.**

Fue aprobada sin modificaciones el acta correspondiente a la sesión de 21.05.2020.

**2.- PROPUESTA PARA LA
APROBACION DEFINITIVA DEL
ESTUDIO DE DETALLE PARA LA
ADAPTACIÓN DE LAS
ALINEACIONES BAJO RASANTE
EN LA PARCELA SITA EN AVDA.
ZUGAZARTE, 61 (AREA DE
REPARTO 5-6 ZUGAZARTE).**

Visto expediente incoado con motivo del escrito presentado por DÑA. ELISABETH PEDRAZUELA, en nombre y representación de INVERPROSA, S.L., acompañando Estudio de Detalle para la adaptación de las alineaciones bajo rasante en la parcela sita en el nº 61 de la Avda. Zugazarte (Area de Reparto 5-6-Zugazarte"); y,

RESULTANDO.- Que, mediante escrito de 11.10.2018, DÑA. ELISABETH PEDRAZUELA, en nombre y representación de INVERPROSA, S.L., acompaña Estudio de Detalle para la adaptación de las alineaciones bajo rasante en la parcela sita en el nº 61 de la Avda. Zugazarte (Area de Reparto 5-6-Zugazarte"), redactado por el Arquitecto Sr. Cardenal Abaitua.

RESULTANDO.- Que, mediante escrito de 14.02.2019, que se complementa el 19.02.2019, presenta la interesada el Documento Ambiental en orden a dar inicio al procedimiento de evaluación ambiental simplificada.

2019-02-22an, Ingurumen Organoak prozedura hasteko dokumentazioa jaso zuen.

Dokumentuak ongitu ondoren, 2019-04-04an berriz bidali zitzaizkion Ingurumen Organoari.

GERTAERA.- Udal arkitektoak txostena egin zuen 2019.04.17an, eta adierazi zuen zenbait ñabardura aintzat hartu behar direla.

GERTAERA.- Xehetasun-azterketaren xedea "sestra azpiko lerrokaduren gaineko zehaztapenak egokitzea" da, baina ez da "etorkizuneko garapentzat" jo behar, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoaren, 3 d) artikuluan eta baterako artikuluetan ezarritako ondorioetarako. 2019-05-24an, interesdunak lurzatiaren xehetasun-azterketako hots-inpaktuaren azterketa aurkeztu zuen; 2019-06-27an, berriz, hots-inpaktuaren azterketa berria aurkeztu zuen.

GERTAERA.- Kultura Zuzendari nagusiaren 2019ko uztailaren 8ko 125 zenbakidun ebazpenaren bidez, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legeak (maiatzaren 9ko 6/2019) 46.1 artikuluan ezarrita dagoen moduan, baimena ematen zaio.

GERTAERA.- 2019-10-02ko Ebazpenaren bidez, Ingurumen Administrazioako zuzendariak ingurumeneko txosten estrategikoa

El 22.02.2019 recepciona el órgano ambiental la documentación para el inicio del procedimiento.

Recabada la subsanación de los documentos remitidos, el 04.04.2019 se realiza un nuevo envío al órgano ambiental.

RESULTANDO.- Que, por la Arquitecto Municipal se emite informe el 17.04.2019, señalando la necesidad de que sean tenidas en cuenta ciertas matizaciones.

RESULTANDO.- Que, aún siendo el objeto del Estudio de Detalle "la adaptación de las determinaciones sobre las alineaciones bajo rasante", sin que deba entenderse por tanto como "futuro desarrollo" a los efectos prevenidos en el Art. 3 d) y concordantes del Decreto 213/2012, de 16 de Octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el 24.05.2019 acompaña la interesada Estudio de Impacto Acústico del Estudio de Detalle de la parcela, presentando el 27.06.2019 nuevo Estudio de Impacto Acústico.

RESULTANDO.- Que, por resolución nº 125/2019, de 8 de Julio, del Director General de Cultura del Departamento de Cultura dependiente de la Diputación Foral de Bizkaia, se dispone el otorgamiento de la autorización previa a que se refiere el Art. 46.1 de la Ley 6/2019, de 9 de Mayo, de Patrimonio Cultural Vasco.

RESULTANDO.- Que, por Resolución de 02.10.2019, del Director de Administración Ambiental, se formula el informe ambiental estratégico que

egin zuen; horren bidez, zehaztu zen ez dela aurreikusten xehetasun-azterketak eragin nabarmenik izatea ingurumenean eta, hortaz, ez dela ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar. Ebazpen hori 2019-10-31ko EHAA n argitaratu zen.

Berariaz agerrarazi behar da ez dela hots-inpaktuaren azterketarik egin adierazpen honetarako, ez baitzen horrelakorik eskatu igorritako dokumentazioa ongitzeko eskatu zenean ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura hasi ahal izateko.

GERTAERA.- udal arkitektoak txosten berria egin zuen 2019.10.30ean, eta adierazi zuen zenbait ñabardura aintzat hartu behar direla.

GERTAERA.- Getxoko Udaleko Tokiko Gobernuko Batzarrak 2019eko azaroaren 12an, 484 zenbakidun erabaki hau hartzen du:

I.- Hasiera batean onetsiko da ELISABETH PEDRAZUELA andreak, INVERPROSA SL enpresaren izen eta ordezkartzan, aurkeztutako xehetasun-azterketa, Zugatzarte etorbideko 61. zenbakian (Zugatzarteko 5-6 banaketa-area) dagoen lurzatian sestra azpiko lerrokatuak egokitzekoa. Hala ere, kontuan hartu behar dira udaleko arkitektoak egindako txostenen jasotako zehaztasunak. Txosten horren kopia bat helaraziko zaio enpresa interesdunari, baita Ingurumen Administrazioaren zuzendariaren 2019-10-02ko

determina que no se prevé que el estudio de detalle vaya a producir efectos significativos sobre el medio ambiente, por lo que no es necesario que se someta a evaluación ambiental estratégica ordinaria. Esta resolución se publica en el BOPV de 31.10.2019.

Se hace constar de forma expresa que para este pronunciamiento no se ha contado con ningún Estudio de Impacto Acústico, que no ha sido solicitado cuando se ha requerido la subsanación de la documentación remitida para dar inicio al procedimiento de evaluación ambiental estratégica.

RESULTANDO.- Que, por la Arquitecto Municipal se emite nuevo informe el 30.10.2019, señalando la necesidad de que sean tenidas en cuenta ciertas matizaciones.

RESULTANDO.- Que, por acuerdo nº 484, adoptado por la Junta de Gobierno Local el 12.11.2019, se dispone:

I.- Aprobar, con carácter inicial, el Estudio de Detalle presentado por DÑA. ELISABETH PEDRAZUELA, en nombre y representación de INVERPROSA, S.L., para la adaptación de las alineaciones bajo rasante en la parcela sita en el nº 61 de la Avda. Zugazarte (Area de Reparto 5-6-Zugazarte”), debiendo tener en cuenta las matizaciones apuntadas en el informe emitido por la Arquitecto Municipal, informe del que se trasladará copia a la mercantil interesada, así como la Resolución de 02.10.2019, del Director de Administración Ambiental, por la que se formula el

Ebazpena ere. Ebazpen horren bidez, ingurumen-txosten estrategikoa egin zen, eta bertan adierazi zen ez dela aurreikusten xehetasun-azterketak ingurumenean ondorio nabarmenik izatea, eta, ondorioz, ez dela beharrezkoa ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egitea (2019-10-31ko EHAAAn argitaratua).

II.- Erabaki hau, jatorrizko espedientearekin batera, jendaurrean erakusteko derrigorrezko izapidean jarriko da 20 egunez, hura aztertu eta alegazioak aurkeztu ahal izateko. Horretarako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta gehien saltzen diren egunkarietan argitaratuko da. Eragin zuzena jasango duten interesdunei, hots, xehetasun-azterketaren eremuan daudenei, banan-banan jakinaraziko zaie.

GERTAERA.- Jendaurreko informaziorako derrigorrezko izapidearen mende jarri zen 2019.11.27ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (227. zenbakian) eta egun bereko "El Correo" eta "Deia" egunkarietan argitaratutako iragarkien bidez. Gainera, interesdunei pertsonalki jakinarazi zitzaizkien.

GERTAERA: 2020-03-14ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu da 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 17koa, COVID-19k eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege

informe ambiental estratégico que determina que no se prevé que el estudio de detalle vaya a producir efectos significativos sobre el medio ambiente, por lo que no es necesario que se someta a evaluación ambiental estratégica ordinaria (publicada en el BOPV de 31.10.2019).

II.- Someter el presente acuerdo, junto con el expediente del que dimana, al preceptivo trámite de información pública, para que puedan ser examinados y presentadas las alegaciones procedentes, por término de 20 días, mediante su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y en el diario o diarios de mayor circulación, con notificación personal a los interesados directamente afectados comprendidos en el ámbito territorial del Estudio de Detalle.

RESULTANDO.- Que, dicho acuerdo se somete al preceptivo trámite de información pública, mediante anuncios que se publican en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 227, de 27.11.2019 y en los diarios "El Correo" y "Deia" de la misma fecha, con notificación personal a los interesados.

RESULTANDO.- Que, en el Boletín Oficial del Estado de 14.03.2020, se publica el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19, que

Dekretua aldatzen duena, eta argitaratu zen unetik dago indarrean. Hirugarren xedapen gehigarriaren arabera, "Sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko terminoak eta epeak eteten dira. Epeen zenbaketa berriz hasiko da errege dekretu honen edo, hala badagokio, haren luzapenen indarraldia bukatzen den unean".

GERTAERA.- Getxoko Udalbatzak bi mila eta hogeiko martxoaren 18an egindako ezohiko eta premiazko Osoko Bilkuran, 39. Zenbakidun erabakia hartu zuen. Erabakia honako hau da:

"39.- ZUGATZARTE ETORBIDEKO 61. ZENBAKIAN (ZUGATZARTEKO 5-6 BANAKETA AREA) DAGOEN LURZATIAN SESTRA AZPIKO LERROKADURAK EGOKITZEKO XEHETASUN-AZTERLANA BEHINBETIKO ONESTEA.

Hirigintza-Plangintza, Kudeaketa eta Disziplina zinegotzi arduradunak proposatuta, aipatutako espedienteak mahai gainean ebazteke uztea, erabakitzea".

GERTAERA.- 2020-05-23ko Estatuko Aldizkari Ofizialean maiatzaren 22ko 537/2020 Dekretua argitaratu da, zeinaren bitartez luzatu egin den 463/2020 Errege Dekretuan deklaraturako alarma-egoera 2020-06-07ko 00:00ak arte eta 463/2020 Errege Dekretuan ezarritako baldintza berberekin, hurrengo artikuluetan ezarri dena gorabehera. Artikulu horietako batean, 9. artikuluan,

entra en vigor en el momento de su publicación. Conforme a su Disposición adicional tercera, "Se suspenden términos y se interrumpen los plazos para la tramitación de los procedimientos de las entidades del sector público. El cómputo de los plazos se reanudará en el momento en que pierda vigencia el presente real decreto o, en su caso, las prórrogas del mismo".

RESULTANDO.- Que, consecuentemente, el Ayuntamiento Pleno, en sesión extraordinaria y urgente de 18.03.2020, adopta el siguiente acuerdo:

"39.- APROBACION DEFINITIVA DEL ESTUDIO DE DETALLE PARA LA ADAPTACIÓN DE LAS ALINEACIONES BAJO RASANTE EN LA PARCELA SITA EN AVDA. ZUGAZARTE, 61 (ÁREA DE REPARTO 5-6 ZUGAZARTE).

A propuesta del concejal responsable de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística, se acordó dejar sobre la Mesa pendiente de resolución el expediente de referencia".

RESULTANDO.- Que, en el Boletín Oficial del Estado de 23.05.2020, se publica el Real Decreto 537/2020, de 22 de mayo, por el que se prorroga el estado de alarma declarado por el Real Decreto 463/2020, hasta las 00:00 horas del día 07.06.2020, sometiéndose a las mismas condiciones establecidas en el Real Decreto 463/2020 y sin perjuicio de lo que se establece en los artículos

hauxe ezarri da: "2020ko ekainaren 1etik aurrera ondorioak izan ditzan, berriz abiaraziko dira etendako administrazio-epeak, edo hasi egingo dira, alarma-egoeran eta luzapenetan lege-mailako araudi batean hala xedatu bada".

GERTAERA.- Abiarazi egin dira Zugazarte etorbideko 61. zenbakian dagoen lurzatiaren sestra azpiko lerrotzeko egokitzeko xehetasun-azterketa onesteko izapidetzen ari den espedienteari dagozkion epeen zenbaketa, eta egiaztatu da ez dela alegaziorik aurkeztu informazio publikoaren izapidean.

OINARRIA.- Xehetasun azterketak, hirigintza-antolamendurako tresnak diren neurrian, hirigintza-antolamendu xehatua ezartzen dute hurrengo arloetan: lerrokadurak eta sestrak adierazi, zuzendu edo osatzea; bolumenak antolatzea edo hirigintza-obren, eraikinen, instalazioen eta gainerako hiri obra eta elementu osagarrien alderdi eta ezaugarri estetikoak nahiz konposizioari buruzkoak arautzea (Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea, 60. eta 73. artikulua).

OINARRIA.- Xehetasun-azterketak hirigintza antolamenduko tresnak dira; hala, ingurumen ebaluazio estrategikoaren mende daude, sinplifikatua bada ere (EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen

siguientes. Uno de esos artículos, el 9, señala que "con efectos desde el 1 de junio de 2020, el cómputo de los plazos administrativos que hubieran sido suspendidos se reanudará, o se reiniciará, si así se hubiera previsto en una norma con rango de ley aprobada durante la vigencia del estado de alarma y sus prórrogas".

RESULTANDO.- Que, reanudado el cómputo de los plazos en relación con el expediente que se tramita para la aprobación del Estudio de Detalle para la adaptación de las alineaciones bajo rasante en la parcela sita en el nº 61 de la Avda. Zugazarte, se comprueba que el trámite de información pública no ha sido formulada alegación alguna.

CONSIDERANDO.- Que, los estudios de detalle tienen por objeto completar o adaptar las determinaciones de la ordenación pormenorizada en cualquier clase de suelo. La necesidad o conveniencia de la complementación o adaptación deberá justificarse por los propios estudios de detalle, cuando su redacción no esté prevista por el planeamiento. Las determinaciones de los estudios de detalle deben circunscribirse, entre otras, al señalamiento, la rectificación o la complementación de las alineaciones y rasantes establecidas por la ordenación pormenorizada.

CONSIDERANDO.- Que, los Estudios de Detalle son instrumento de ordenación urbanística y, como tales, están sujetos a evaluación ambiental estratégica, si quiera simplificada (Arts. 60, 73 y concordantes de la Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y

60. eta 73. artikulua eta baterako gainerakoak, eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6. artikulua).

OINARRIA.- Ingurumen ebaluazioaren prozedura estrategiko sinplifikatua ingurumen txosten estrategikoarekin amaitu behar da, 21/2013 Legearen 31. artikulua aipatutakoarekin.

OINARRIA.- Urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoaren, 3. d) artikuluan ezarritakoaren arabera, hauxe da "etorkizuneko garapena": hirigintzako edozein jarduera, baldin eta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, bere 207. artikuluko b) apartatuan aurreikusitako lizentzia beharko duen lan edo eraikuntzaren bat egitea aurreikusten bada (mota guztietako eraikin berrien instalazioak eraiki eta ezartzeko obrak).

OINARRIA.- Xehetasun azterlanak, hasiera batean onetsi ondoren, jendaurrean erakutsiko dira hoguei egunez, aztertu ahal izateko eta bidezko alegazioak aurkeztu ahal izateko, lurralde historiko egokiko aldizkari ofizialean iragarkia jarriz, eta lurralde horretan gehien irakurtzen den egunkari(et)an iragarkia jarriz.

OINARRIA.- Udaleko Osoko Bilkurak eskumena du planeamendu orokorra hasiera batean onesteko, planen eta hirigintzako legerian ezarritako gainerako antolaketa-tresnen udal-

Urbanismo del País Vasco, y 6 de la Ley 21/2013, de 9 de Diciembre, de Evaluación Ambiental).

CONSIDERANDO.- Que, el procedimiento de evaluación ambiental estratégico simplificado ha de culminar con el informe ambiental estratégico, al que se refiere el Art. 31 de la Ley 21/2013.

CONSIDERANDO.- Que, de conformidad con lo prevenido en el Art. 3 d) del Decreto 213/2012, de 16 de Octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se entiende por "futuro desarrollo", cualquier actuación urbanística donde se prevea la realización de alguna obra o edificio que vaya a requerir de una licencia prevista en el apartado b) del artículo 207 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo (Las obras de construcción, edificación e implantación de instalaciones de toda clase de nueva planta).

CONSIDERANDO.- Que, los estudios de detalle, una vez aprobados inicialmente, se someterán a información pública durante veinte días, para que puedan ser examinados y presentadas las alegaciones procedentes, mediante anuncio en el boletín oficial del territorio histórico correspondiente y publicación en el diario o diarios de mayor circulación del mismo.

CONSIDERANDO.- Que, el Ayuntamiento Pleno es competente para la aprobación inicial del planeamiento general y la aprobación que ponga fin a la tramitación

izapidetzeari amaiera ematen dion onespena emateko, baita tresna horietakoren bat aldatzeko helburua duten hitzarmenak onesteko ere.

IKUSITA.- Tokiko araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea; EAEko Toki erakundeen apirilaren 7ko 2/2006 Legea; EAEko lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2016 Legea; Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legea; Planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretua; Getxoko Hiri Antolaketako Plan Orokorra, eta gaian aplikatu behar diren gainerako legeak.

Lurraldeko Informazio Batzordeak aldeko zortzi botorekin (PNV-EAJ, PSE-EE eta PP) eta hiru abstentziorekin (ELKARREKIN-PODEMOS eta EH-BILDU) hala eskaturik, proposamen hau aurkezten zaio Udalari:

ERABAKI PROPOSAMENA:

LEHENENGOA.- Behin betiko onestea ELISABETH PEDRAZUELA andreak, INVERPROSA SL enpresaren izen eta ordezkartzan, aurkeztutako xehetasun-azterketa, Zugatzarte etorbideko 61. zenbakian (Zugatzarteko 5-6 banaketa-area)

municipal de los planes y demás instrumentos de ordenación previstos en la legislación urbanística, así como los convenios que tengan por objeto la alteración de cualesquiera de dichos instrumentos; y,

VISTOS.- Ley 7/85, de 2 de Abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local; Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi; Ley 2/2006, de 30 de Junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco; Ley 21/2013, de 9 de Diciembre, de Evaluación Ambiental; DECRETO 211/2012, de 16 de octubre, por el que se regula el procedimiento de evaluación ambiental estratégica de planes y programas; Decreto 213/2012, de 16 de Octubre, de contaminación acústica de la Comunidad Autónoma del País Vasco; Ley 39/2015, de 1 de Octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas; Plan General de Ordenación Urbana del municipio de Getxo; y demás legislación de aplicación a la materia.

A instancia de la Comisión Informativa de Territorio, y con ocho votos favorables (PNV-EAJ, PSE-EE y PP) y tres abstenciones (ELKARREKIN-PODEMOS y EH-BILDU), se eleva a consideración del Ayuntamiento Pleno la siguiente,

PROPUESTA DE ACUERDO:

PRIMERO.- Aprobar, con carácter definitivo, el Estudio de Detalle presentado por DÑA. ELISABETH PEDRAZUELA, en nombre y representación de INVERPROSA, S.L., para la adaptación de las alineaciones bajo rasante en la parcela sita en el nº

dagoen lurzatian sestra azpiko lerrokadurak egokitzeak. Kontuan hartu beharko ditu hasierako onarpenean jasotako zehaztasunak

Berriaz agerrarazi behar da Ingurumen Administrazioaren 2019-10-02ko EBAZPENAREN bidez ingurumeneko txosten estrategikoa egin zela; txosten horrek zehaztu zuen ez dela aurreikusten xehetasun-azterketak eragin nabarmenik izatea ingurumenen eta, hortaz, ez dela ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egin behar. Ebazpen hori 2019-10-31ko EHAA n argitaratu zen.

BIGARRENA- Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta interesdunei jakinaraziko zaie, jar ditzaketen errekursoak azalduz.

HIRUGARRENA.- Alkatetza-Udalburutzari erabaki horiek egikaritzeko beharrezkoak diren nahi adina ebazpen hartzeko ahalmena ematea.

3.- ARLOKO HAINBAT GAIRI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA.

Iñigo Urkitzak, Udal Eraikinen eta Hirigintzako Plangintza, Kudeaketa eta Diziplina Arloaren zinegotzi arduradunak, eman dio hasiera atal honi, eta honako hauen berri eman du:

.- "BENTA" IZENEKO UDAL-ERAIKINAREN BEHEKO SOLAIRUA EGOKITZEKO OBRA: adjudikatu egin da, eta egikaritze-fasean dago.

61 de la Avda. Zugazarte (Area de Reparto 5-6-Zugazarte"), debiendo tener en cuenta las matizaciones apuntadas a la aprobación inicial.

Se hace constar, de forma expresa, que por RESOLUCIÓN de 02.10.2019, del Director de Administración Ambiental, se formula el informe ambiental estratégico que determina que no se prevé que el estudio de detalle vaya a producir efectos significativos sobre el medio ambiente, por lo que no es necesario que se someta a evaluación ambiental estratégica ordinaria. Esta resolución se publica en el BOPV de 31.10.2019.

SEGUNDO.- Publicar este acuerdo en el Boletín Oficial de Bizkaia y notificarlo a los interesados con indicación de los recursos procedentes.

TERCERO.- Facultar a la Alcaldía Presidencia para la adopción de cuantas resoluciones sean necesarias para la ejecución de estos acuerdos.

3.- INFORMACIÓN GENERAL ACERCA DE DISTINTOS ASUNTOS DEL ÁREA.

Inicia este apartado el Concejal Responsable del Area de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanísticas y Edificios Municipales, Iñigo Urkitza, que da cuenta de los siguientes asuntos:

.- OBRA DE ADECUACIÓN DE LA PLANTA BAJA DEL EDIFICIO MUNICIPAL DENOMINADO "LA VENTA": adjudicada la misma, se encuentra en fase de ejecución.

.- UDALETXEAREN INGURUKO BALAUSTRADAK BERRERAIKITZEKO OBRAK: lizitazio-fasean dago.

.- BIZKAIA ZUBIAREN PLAZAN KOMUNAK BIRGAITZEA: lizitazio-fasean dago.

.- PORTU ZAHARREAN TXOKEREN ERAIKIAREN ESTALKIAREN OBRAK: laster lizitatuko dira.

Beste alde batetik, Janire Ociok, Azpiegitura, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Arloko zinegotzi arduradunak, honako proiektu hauen berri eman du:

.- Portu Zaharreko bidearen amaierako zatiaren ezpondaren 1. fasea, egikaritzen ari dira.

ALGORTAKO MAKALEN PARKEA ETA SATISTEGI EREMUKO MANTENTZE-ETA URBANIZAZIO-PROIEKTUA, lizitazioan dago.

Eduardo Andrade zinegotziak esan nahi du bere taldea ez dagoela obra batzuekin ados; izan ere, taldearen iritziz, ez dute ezponda babesten eta aparkatzeko lekuak baino ez dituzte mugatzen (hogei bat itsasoari begira dagoen eremuan).

Janire Ociok azaldu du itsaso eta lurreko jabari publikoak ukitzen dituzten lurzatiak Kostalde Mugapenaren eskumena direla. Gainera, aipatutako administrazioarekin izandako

.- OBRAS PARA LA RECONSTRUCCIÓN DE LAS BALAUSTRADAS DEL ENTORNO DE LA CASA CONSISTORIAL: se encuentran en fase de licitación.

.- REHABILITACIÓN BAÑOS EN LA PLAZA DEL PUENTE BIZKAIA: se encuentran en fase de licitación.

.- OBRAS EN LA CUBIERTA DEL EDIFICIO DE LAS TXOKERAS EN EL PUERTO VIEJO: en breve serán licitadas.

Por su parte, Janire Ocio, como Concejales Responsable del Área de Infraestructuras, Obras y Servicios y Medio Ambiente, informa sobre los siguientes proyectos:

.- Fase 1 Talud tramo final vial Puerto Viejo, que se encuentra en ejecución.

.- PROYECTO DE SOSTENIMIENTO Y URBANIZACIÓN DE ZONA SATISTEGI Y PARQUE LOS CHOPOS EN ALGORTA, que se encuentra en licitación.

El Concejales Eduardo Andrade quiere mostrar la disconformidad de su grupo frente a unas obras que, a su juicio, no protegen el talud y se limitan a anular plazas de aparcamiento (hasta veinte en la zona que mira al mar).

Janire Ocio explica que los terrenos se encuentran afectados por el dominio públicomarítimo-terrestre, competencia de la Demarcación de Costas, y da cuenta de los contactos habidos con la citada Administración trasladando

harremanen berri eman da, non Algortako Portu Zaharreko amaierako eremuan, Usategi parkearen azpian, dagoen ezpondaren egoeraren berri eman zaien, bai eta udal honi dagozkion eskumenak betetzeko hartutako babes-neurrien berri ere.

Eduardo Andradek uste du Kostalde Mugapenari esku hartzeko eskatu behar zaiola, dituen eskumen arabera, eta Nerea Guijarrubia zinegotziaren iritziz, berriz ere errepikatu behar da erreklamazioarena.

Paula Amieva zinegotziak adierazi du biribilgunearen tamainari lotutako kexaren bat egon dela, eta beldur da; izan ere, baliteke egokia ez izatea autoek ondo biratzeko. Janire Ociok azaldu du Igeretxeakoaren tamaina bera duela.

4.- GALDERAK ETA ESKAERAK

Popular Udal Taldearen 12.371/2020 idazkia; beraren bidez, Muxikebarriko konponketei buruz galdetu du.

Iñigo Urkitzak azaldu du emateko ordurako konponketen zerrenda prestatzen ari direla.

Popular Udal Taldearen 13.471/2020 idazkia; beraren bidez, Andrés Cortina kaleko zamalanetarako guneari buruz galdetu du.

Natalia Aranduy zinegotziak sortzen diren arazoak azaldu ditu, eta Janire Ociok esan du Azpiegitura eta Zerbitzuen Unitateak har zitezkeen neurriak hartu dituela. Hori dela eta, Udaltzaingoiari bidali zaio idatzia.

la situación del talud situado en la zona final del Puerto Viejo de Algorta, bajo el parque Usategi, así como las medidas de protección tomadas en el ejercicio de las competencias que le son propias a este Ayuntamiento.

Eduardo Andrade entiende necesario exigir la actuación de la Demarcación de Costas en el ámbito de sus competencias y la Concejala Nerea Guijarrubia considera que debe insistirse con la reclamación.

La Concejala Paula Amieva señala que ha habido alguna queja acerca de la dimensión de la rotonda y teme que no sea adecuada para que los coches puedan realizar el giro. Janire Ocio explica que la dimensión es igual que la del Igeretxe.

4.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

Escrito nº 12.371/2020 del Grupo Municipal Popular preguntando por las reparaciones en Muxikebarri.

Iñigo Urkitza explica qu ese está preparando el listado de las reparaciones habidas para su entrega.

Escrito nº 13.471/2020 del Grupo Municipal Popular preguntando por la zona de carga y descarga en la calle Andrés Cortina.

La Concejala Natalia Aranduy explica los problemas que se producen y Janire Ocio señala que desde la Unidad de Infraestructura y Servicios se ha tomado las medidas posibles, por lo que se trasladará el escrito a la Policía Local.

Popular Udal Taldearen 13.473/2020 idazkia; beraren bidez, Areetako skate pistan Pantaila Akustikoak Egiteko Proiektuaren idazketaren kopia eskatu dute.

Proiektua eskuragarri dago, nahi duenak kontsultatzeko. Bolumena dela eta, ez da horren kopiarik egingo. Bertsio digitala berreskuratzen saiatu gara, CDa hondatuta baitago. Ez da egin finantzaketa faltagatik.

EH Bildu Taldearen 14.008/2020 idazkia, beraren bidez, San Nikolas plaza azpiko parkingeko egoerari buruz galdetu dute.

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza Arloko arduraduna den Alvaro Gonzálezek plazen okupazio-datuak eman ditu, eta etorkizunerako aukerak aztertzen ari direla azaldu du.

EH Bildu Taldearen 14.010/2020 idazkia, beraren bidez, Sastegi eta Portu Zaharra artean dagoen mendi malda egoerari buruz galdetu dute.

Janire Ocio txosten teknikoaren kopia bat eman dio Nerea Guijarrubiari, eta maldaren egoera dela eta garatuko diren jarduketak aipatu ditu.

Popular Udal Taldearen 14.117/2020 idazkia; beraren bidez, Manuel Gainzako aparkalekuari buruz galdetu dute.

Escrito nº 13.473/2020 del Grupo Municipal Popular solicitando copia de la Redacción del Proyecto de Ejecución de Pantallas Acústicas en la Pista de Skate de Las Arenas.

El proyecto se encuentra disponible para su consulta. Debido a su volumen, no va a realizarse una copia del mismo. Intentamos recuperar la versión digital, pues el CD está dañado. No se ha ejecutado por falta de financiación.

Escrito nº 14.008/2020 de EH Bildu, preguntando por la situación del parking de debajo de la Plaza San Nikolas.

Alvaro González, Concejal Responsable del Área de Contratación, Patrimonio y Vivienda, facilita los datos de ocupación de las distintas plazas y comenta que ese están analizando las posibilidades a futuro.

Escrito nº 14.010/2020 de EH Bildu, preguntando por la pendiente entre Sastegi y el Puerto Viejo.

Janire Ocio entrega a Nerea Guijarrubia una copia del informe técnico y se refiere a las actuaciones que se desarrollan en relación con el estado de la pendiente.

Escrito nº 14.117/2020 del Grupo Municipal Popular preguntando por el parking de Manuel Gainza.

Janire Ociok bereizi egin ditu, alde batetik, aparkalekuaren obra (amaituta dago, fatxadan egin behar diren zuzenketa batzuk izan ezik), eta, beste alde batetik, urbanizazioa (hurrengo hilabetean amaitzea aurreikusitako da).

Ondoren, abian jartzeko aldia egongo da.

EH Bildu Taldearen 14.398/2020 idazkia, beraren bidez, Gaztetxeo pankarta bat kendu ondoren, bizikletak aparkatzeko elementuak zergatik kendu zuten galdetu du.

Janire Ociok kentzeko arrazoi teknikoak azaldu ditu, Euskaltegia ixteari eta eskaria handiagoa den lekuetan jartzeari lotuta. Dena den, adierazi du eskaria handia bada, bertan jarriko liratekeela.

Itxaso Masedaren arabera, eskaria egon badago, eta adierazi du RKEko bizikletak aparkatzeko lekuan aspalditik abandonatutako bizikletak daudela.

EH Bildu Taldearen 14.400/2020 idazkia, beraren bidez, Azkorriko biribilguneari buruz galdetu dute.

Janire Ociok azaldu du Euskotrenen autobusek biratzeko zuten espazioaren eta ikusgarritasunaren zailtasunei eman zaiela arreta, biratzeko aukera ematen duen biribilgune batekin. Arrazoizkoagoa den irtenbide tekniko bat hautatu da, eta ahalik eta espazio txikiena okupatzen saiatu dira. Webgunean daude bidaiarien kopuruari buruzko datuak.

Janire Ocio distingue por una parte la obra del aparcamiento, terminada a salvo de ciertas correcciones en la fachada, y por otra la urbanización, cuya finalización se prevé para el mes próximo.

Después habrá un periodo para la puesta en marcha.

Escrito nº 14.398/2020 de EH Bildu, preguntando por los motivos de retirada del aparcabici tras retirar una pancarta del Gaztetxe.

Janire Ocio explica las razones técnicas para la retirada, que vincula al cierre del Euskaltegi y su recolocación en lugares de mayor demanda. Señala no obstante que, si hubiera demanda, se colocarían.

Itxaso Maseda apunta que cree que la demanda existe y señala que en el aparcabici de la RKE hay unas bicicletas abandonadas desde hace tiempo.

Escrito nº 14.400/2020 de EH Bildu, preguntando por la rotonda de Azkorri.

Janire Ocio explica que se han atendido las dificultades de espacio y visibilidad con las que se encontraban los autobuses de Euskotren para dar la vuelta, mediante una rotonda que posibilita el giro. Se ha optado por la solución técnica más razonable intentando ocupar el mínimo espacio posible. Los datos sobre número de viajeros están en la página web.

Elkarrekin-Podemos Taldearen
telemakikoki 2525/2020
zenbakiarekin errejistratutako
idazkia; beraren bidez, bizikleta-
zonak eta trafikoari buruz galdetu
dute.

Janire Ociok Gabriel Aresti kalearen inguruko eskaerak banandu ditu (Leioako udal-mugaratean dago), eta Leioa etorbideari buruzkoetatik bereizi ditu, Azpiegitura eta Zerbitzuak Unitateak dagozkion neurriak hartu dituela uste baitu. Gaia Udaltzaingoari helaraztea iradoki du. Partikularraren idazkiari dagokionez, erantzun dela jakinarazi du, eta Paula Amievari emandako erantzunaren kopia aurkeztu du.

Elkarrekin-Podemos Taldearen
telemakikoki 2526/2020
zenbakiarekin errejistratutako
idazkia; beraren bidez, Algortako
azoka eta euskategi zaharrari buruz
galdetu dute.

Azokatxoari dagokionez, kudeaketa pribatua dela adierazi da, baita ere III. fasetik dagoela irekita, edukiaren herenarekin.

Bizikletak aparkatzekoari dagokionez, Paulak adierazi du 14.398/2020 idatziarekin batera erantzun zela. Horrez gain, esan du bizikletak aparkatzekoa mantendu beharko zela, bizikletaren aldeko konpromisoarekin koherenteak izateko.

Janirek berriz ere esan du bizikletak aparkatzekoa jarriko dela eskaria baldin badago.

Escrito con nº de registro telemático
2525/2020, de Elkarrekin-Podemos,
preguntando por zonas de bici y
tráfico (RE 14438/2020).

Janire Ocio separa las demandas relativas a la calle Gabriel Aresti, comprendida en el término municipal de Leioa, de las relativas a la Avda. Leioa, donde entiende adoptadas, desde la Unidad de Infraestructura y Servicios, las medidas procedentes. Sugiere el traslado de la cuestión a la Policía Local.

Sobre el escrito del particular, informa que ha sido contestado y entrega copia de la contestación a Paula Amieva.

Escrito con nº de registro telemático
2526/2020, de Elkarrekin-Podemos,
preguntando por el Mercadillo de
Algorta y el antiguo Euskaltegi (RE
14439/2020).

Acerca del mercadillo, se informa que la gestión es privada y que lleva abierto desde la Fase III, con un tercio del aforo.

Acerca del aparcabicis, Paula señala que ya ha sido contestada cuando se ha tratado el escrito nº 14.398/2020 y quiere manifestar que sería deseable mantener los aparcabicis, en coherencia con el compromiso decidido a favor de la bicicleta.

Janire insiste en que se colocarán los aparcabicis si existe demanda.

Popular Udal Taldearen 14.485/2020 idazkia; beraren bidez, Barria kaleko tanatorioko lizentzia berriz aztertzeko den eskatu du.

Iñigo Urkitzak indarrean dagoen araudi-esparrua gogoratu du berriz ere, non udalaren esku-hartzea mugatzen den. Donostiako kasuari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Gorenaren 2474/2007 Epaia aipatu du, Donostiako Udalaren erabakien aurkakoa.

Nerea Gujarrubiak honi buruz galdetu du: udalak ehorztetxeren batekin duen kontratu bat. Alvaro Gonzálezek heriotzetarako aseguru-kontratu bat aipatu du, baina ez du uste ehorztetxe zehatz bati lotuta dagoenik.

Popular Udal Taldearen 14.488/2020 idazkia; beraren bidez, Barria kaleko lokal berean lizentzia bat ukatzeari buruz galdetu du.

Eduardo Andradek lokaletik hurbil dauden auzokideei eskainitako alegazioen izapidea aipatu du, supermerkatuaren jarduera instalatzeko lizentzia eman aurretik egina (2003. urtea).

Iñigo Urkitzak beste araudi-esparru batean gaudela aipatu du, eta udalak esparru hori bete behar duela izapide egokiak definitzeko.

Talde politikoei aurkeztutako idatziak aztertzen amaitu ondoren, jarraian, **herritarrek aurkeztutako idatziak** aztertu dira.

Escrito nº 14.485/2020 del Grupo Municipal Popular preguntando si va a reconsiderarse la licencia del tanatorio de la calle Barria.

Iñigo Urkitza recuerda una vez más el marco normativo vigente, que limita la intervención municipal. Acerca del caso de Donosti, refiere la Sentencia del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco nº 2474/2007, contraria a los acuerdos del Ayuntamiento de Donosti.

Nerea Gujarrubia se interesa por la existencia de un contrato del Ayuntamiento con alguna funeraria. Alvaro González se refiere a un contrato de seguros para decesos pero no cree que esté vinculado con ninguna funeraria en concreto.

Escrito nº 14.488/2020 del Grupo Municipal Popular preguntando una licencia en el mismo local de la calle Barria.

Se refiere Eduardo Andrade al trámite de alegaciones que se ofreció a los vecinos inmediatos al local, previo a la licencia para la instalación de la actividad de supermercado (año 2003).

Iñigo Urkitza señala que no estamos ante el mismo marco normativo y a dicho marco ha de atender este Ayuntamiento para la definición de los trámites procedentes.

Terminados de analizar los escritos presentados por los grupos políticos, se procede, seguidamente, a examinar **los escritos presentados por los ciudadanos.**

Isabel Peral Informazio Batzordeko idazkariak batzorde horri zuzendutako idatzi bat dagoela esan du.

Javier Jubindo Duartek aurkeztu du. Bertan berriz ere egin du galdera bat Urkijo kalearen 6 bis atariaren alboan duela gutxi instalatu den argiteria publikoaren armairuari buruz (eta zaharkituta dagoen beste biei buruz), bai eta beilatokia instalatzeko proiektuari buruz ere. Batzordeko idazkariak egindako galderak irakurri ditu, eta honela erantzun dituzte:

.- Janire Ociok esan du ikuskapen-bisita egin dela erabakirik egokienak hartzeko, eta Javier Jubindok egindako iradokizunak jaso dituela.

.- Iñigo Urkitzak esan du proiektua kontsultatzeko eskuragarri dagoela, bai eta ez duela obrak gelditzeko arrazoirik ikusi ere.

Bilera amaitu baino lehen, Eduardo Andradek eta Paula Amievak Errotatxu industrialdea urbanizatzeko obretarako egindako jarduketan berri izan nahi dute.

Batzordeko idazkaria azalpenak ematen hasi da, eta Udal Plangintzako Arau Subsidiarioak aipatu ditu, non, besteak beste, 15. zenbakia duena zedarritu zen urbanizatzeko sektore egokien artean ("Zubieta Industrialaren izeneko").

Arau horiek garatzeko, 15- "Zubilleta Industrial" lurzoru urbanizagarriko sektorerako plan partziala onetsi zen.

La Secretaria de la Comisión Informativa, Isabel Peral, relata que hay un escrito dirigido a esta Comisión.

Lo ha presentado Javier Jubindo Duarte, que pregunta nuevamente en relación con el armario de alumbrado público de reciente instalación junto al portal del nº 6 bis de la calle Urkijo (y los otros dos que considera obsoletos) y por el proyecto para la instalación del tanatorio.

La Secretaria de la Comisión da lectura a las preguntas formuladas, que se contestan de esta manera:

.- Janire Ocio señala que se ha girado visita de inspección para tomar las decisiones más adecuadas y que ese toma nota de las sugerencias realizadas por Javier Jubindo.

.- Iñigo Urkitza señala que el proyecto está disponible para su consulta y que no ha visto motivo para la paralización de las obras.

Antes de dar por terminada la reunión, Eduardo Andrade y Paula Amieva se interesan por las actuaciones que se siguen en relación con las obras de urbanización del Polígono Errotatxu.

La Secretaria de la Comisión comienza sus explicaciones remontándose a las Normas Subsidiarias de Planeamiento Municipal, que delimitaron, entre los Sectores Aptos para Urbanizar, el reseñado con el nº 15, denominado "Zubilleta Industrial".

En desarrollo de tales Normas, fue aprobado el correspondiente Plan Parcial para el Sector Apto para

Plan partzialaren memorian aipatu egiten zen urbanizazio-obren emaitza diren elementuak kontserbatzea, eta adierazten zuen osatuko zen kontserbazio-erakundearen ardura izango zela, eta erakunde horren barruan egongo zirela denborarekin sartzen ziren jabe guztiak.

Zehaztapen horiekin bat etorritz, aipatutako sektoreko lurzoruaren jabeek osatzen dute 15-Zubilleta Industrialaren lurzoru urbanizagarriaren kudeaketa egiten duen entitate, eta kontserbatzeko entitate bihurtu beharko litzakete urbanizazio-obra amaitu ondoren.

Hala ere, zaila denez jabe partikularrek titulartasun publikoko urbanizazio-obren kontserbazio mugagabea egitea, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 LEGEAREN 197. artikulua araber, GETXOKO UDALAREN eta ERROTATXU ENTITATEAREN arteko hitzarmena sinatu zen urbanizazio-obra kontserbatzeko betebeharrak lagatzeko. Entitate hori behartuta dago, aldez aurretik eta lagapen hori egin dezan, hitzarmenari erantsitako proiektuan definitutako obrak gauzatzera eta ordaintzera. Azpiegitura Unitatearen txostenean eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2017-09-19an hartutako 394 Erabakian jasotako ñabardurekin, guztiak hitzarmenaren zati direnak.

Urbanizar 15-“Zubilleta Industrial”, que ya en su Memoria, se refería a la conservación de los elementos resultantes de las obras de urbanización, para decir que la llevaría a cabo la Entidad de Conservación que se formara, que englobaría a la totalidad de los propietarios que se fueran incorporando a lo largo del tiempo.

En consonancia con tales determinaciones, la Entidad que se constituía para la gestión del Sector de Suelo Apto para Urbanizar 15-Zubilleta Industrial, integrada por los propietarios del suelo del citado sector, debía reconvertirse en Entidad de Conservación una vez finalizada la obra de urbanización.

Sin embargo, y ante dificultad de la conservación indefinida de obras de urbanización de titularidad pública por parte de propietarios particulares, atendido lo prevenido en el Art. 197 de la LEY 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, se alcanza un convenio entre el AYUNTAMIENTO DE GETXO y la ENTIDAD ERROTATXU para la cesión de la obligación de conservación de la obra de urbanización, estando obligada la citada entidad, de forma previa y para que opere tal cesión, a la ejecución y costeamiento de las obras definidas en el proyecto que se acompaña como anexo al convenio, con las matizaciones resultantes del informe de la Unidad de Infraestructura y del acuerdo nº 394, adoptado por la Junta de Gobierno Local el 19.09.2017, todos ellos parte integrante del propio convenio.

Errotatxu entitateak Getxoko Udalarengana jo du gauzatutako obrak haren esku jartzeko. Dena den, udalak uste du egindako obrak ez datozela bat egin behar zirenekin, hitzarmenaren bitartez hartutako erabakien arabera, non eranskin guzti-guztiak barne hartzen diren.

Gaur egun, posizioen ezberdintasuna ebaluatu da.

Nerea Guijarrubiak hitzarmenaren kopia bat eskatu du. Talde guztiei emango zaie.

Beste gairik ez dagoenez, lehendakariak bilera 10:40an bukatutzat eman du.

La Entidad Errotatxu se ha dirigido al Ayuntamiento de Getxo al objeto de poner a su disposición las obras ejecutadas. Sin embargo, el Ayuntamiento entiende que las obras realizadas no se corresponden con las que debieron ser ejecutadas, atendidos los acuerdos alcanzados vía convenio, del que forman parte todos y cada uno de sus anexos.

En la actualidad se evalúa esta diferencia de posiciones.

Nerea Guijarrubia solicita una copia del convenio. La misma será facilitada a todos los grupos.

Sin más asuntos que tratar y siendo las 10: 40 horas, la Presidenta da por finalizada la sesión.